

## Elkar ezagutu eta zaintzeko xedez

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleak eta Atsobakar zaharren egoitzako egoiliarak belaunaldi arteko programa batean parte hartzen ari dira / 4

TXINTXARRI

## Teoriatik praktikara eramaten

XV. Udaltop topaketa egiten ari dira kultur etxean, 'Bat, bi, hiru... Eskolaz kanpoko euskaratik eta euskaraz' lelopean / 5

**Michelin Lasarte** lantegiko enpresa batzordeak lau greba egun iragarri ditu **ekain eta uztaileko** / 3

**Jakitea elkarteko zazpi sukaldariren afari bikaina dastatu dute herritarrek Intza Pilota Elkartean** / 6

**'Kanpora sartzen' antzezlanaren emanaldia egin dute, GIB birusarekin nola bizi erakusteko** / 7

**Eguzki Areto Futboleko infantil taldeak Gipuzkoako txapelketako finalerdia jokatuko du** / 10

**Buruntzaldea IKTko igerilariak emaitza ederrak lortu dituzte Tarbeseko eta Hernaniko probetan** / 12

**Giro ederra izan dute Azkorteko ermitan: eguraldia lagun, erromeriaz gozatu dute bertara igotakoek** / 16

txintxarri **BEREZIA**  
JASOKO DUZUE HILAREN 19AN



**Alkategaiei elkarrizketak  
UDAL HAUTESKUNDEAK**

2023



## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



# "Herritarren konfiantza eskuratu nahi dugu"

Datorren legealdian gauzatzeko 175 proposamen jaso ditu PSE-EEK hauteskundeetako programan. Hiru oinarri ditu: alor soziala, garapen jasangarria eta parte hartzea, herriak "bizia" izaten jarrai dezan. Bozetan inor etxean ez geratzeko eskatu dute sozialistek

## Txintxarri

Lerro hauek irakurtzerako, hasita egongo da maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskunde kanpaina. Egun bat lehenago aurkeztu zuen hauteskunde programa Lasarte-Oriako PSE-EEK, Froilan Elespe Herriko Etxean. Agustin Valdivia alkateak eta alderdiaren idazkari Iñaki Mugicak xehetu zituzten nondik norakoak. Datozen lau urteetan aurrera emateko 175 proposamen jaso dituzte txostenean, hiru ataletan banatuta: alor soziala, herriaren garapen jasangarria eta hura "bizirik" mantetzeko ekimenak, parte hartzean oinarrituta. "Ilusionatuta gaude eta indarrez gainezka, proposamen hauekin herritarren konfiantza eskuratu nahi dugu", adierazi zuen Valdiviak. Gero eta gertuago dauden bozetara begira, aurkezpenera bertaratu zirenei honakoa esan zien: "Guztion babes behar dugu irabazi eta neurriak gauzatu ahal izateko; inork ezin du etxean geratu hauteskunde egunean".

Lasarte-Oriaren ezaugarriek hauek izan behar dutela azpimarratu du alkateak: jasangarria, osasungarria, soziala, genero arrakalarik



Iñaki Mugica eta Agustin Valdivia alkatea, programaren berri ematen. TXINTXARRI

gabekoa, solidarioa eta segurua, "gure izaera eta gobernatzeko ereduaren islada". Neurri sorta hori zenbait herritarren ekarpenekin osatu dutela zehaztu zuen. Eskerrak eman zizkien horiei guztiei parte hartzeagatik.

## Hiru atal, hiru oinarri

Esan bezala, sozialistek hiru oinarritan ardatz dituzte hauteskundeetara aurkeztuko dituzten egitasmoak. Horietako

bakoitzari atal bat eskaini diote. *Lasarte-Oria, guztientzako aukerak emango dituen espazioa* izena du lehenengoak, eta, horren barruan, besteak beste, enpleguari buruzko proposamenak egin dituzte. "Aukerak eta baliabideak emango ditugu bizilagunek herrian lan egin dezaten, baldintza duin eta egonkorretan". Norabide horretan, Enplegu Mahaia berri eta Beterri-Buruntza garapen agentzia bultzatuko dute. Beste

alor sozial batzuk ere hizpide izan zituen alkateak, hala nola, adinekoei arreta eta genero berdintasuna. Lehenengoari dagokionez, esan du sozialistek arreta eta kudeaketa zerbitzu bat irekiko dutela Biyak Bat egoitzan eta Atsobakar zabaltzeko proiektua martxan dagoela gogorarazi; tutoretzapeko sei apartamentu kudeatuko ditu udalak. Bigarrenari dagokionean, II. Berdintasun Plana garatuko dutela esan du, "herriko emakume guztiekin elkarlanean".

Bigarren atalak *Lasarte-Oriaren giza garapen jasangarria* izena du. Horren barruan, "herriko hurrengo ekipamendu esanguratsua izango dena" hizpide izan zuen Valdiviak. Kiroldegi berriaren lanak udan hasiko direla aurreratzearekin batera, gaur egun Maialen Chourraut izeneko eraikina dagoen eremuan "kohesio sozialeko eraikin bat" egitea proposatuko dute sozialistek: gazteei etxetik joatea ahalbidetuko dien 88 etxebizitza, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentro berria, Udaltzaingoaren egoitza eta udal haurtzaindegia, "gaur egungoa baino handiagoa". Eusko Jaurlaritzarekin batera aurrera eramango lukete egitasmo hori, udal gobernu beraien esku egonez gero.

Azkenik, hirugarren atalari buruz jardun zen alkatea: *Lasarte-Oria, bizia eta parte hartzailea*. Sozialisten asmoa herriak "aktibo izaten jarraitzea" dela adierazi zuen Valdiviak aurkezpenean, eta, horretarako, elkarte eta eragileen bideragarritasun ekonomikoan laguntzeko plan bat ondu dutela. "Hitzarmenak

## "Zaintza eredu berri bat" Gipuzkoan

Gipuzkoako PSE-EEK agerraldi bat egin du berriki Atsobakar egoitza kanpoaldean, gizarte politiketara bideratutako hauteskunde programa aurkezteko. Lurralde horretako ahaldu nagusi izateko hautagai Jose Ignacio Asensiok nabarmendu du Gipuzkoako Foru Aldundiak "zaintza eredu berri bat" bultzatu behar duela, gizarte babeserako sistema zainduz zein zabalduz eta "abangoardian" kokatuz.

Maiatzaren 28ko hauteskunderi begira, esan du "estrategia berri bat" bultzatuko duela: egoitza eredu alde batera utzi eta horren orde adinekoei eta mendekotasuna duten pertsonen euren etxeetan bizitzea ahalbidetuko dieten laguntzak eta baliabideak jartzearen alde agertu da.

lau urtekoak izango dira". Parte hartzea sustatzen jarraituko dutela agindu zuen, alkatearen bulegoak irekita egoten segiko duela, datorren urtetik aurrera San Pedro Jaiak beti bost egunekoak izatea proposatu eta Atsobakarreko kirol guneko obrak hasi direla iragarri. Urtebete inguru iraungo dutela aurreikusi du Lasarte-Oriako PSE-EEK.

## Sanpedroetan jarduerak egiten dituztenentzako dirulaguntzak

Lasarte-Oriako Udalak 10.157 euroko lerro bat prestatu du. Interesa dutenek hilaren 25era arte dute eskaera egiteko

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du dirulaguntza lerro bat prestatu duela, 10.157 eurokoa, San Pedro Jaietan jarduerak antolatzen dituzten eta egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisikoentzat nahiz

juridikoentzat. Hilaren 25era arte egin ahalko dituzte eskaerak, ostegunarekin.

Interesa dutenek dirulaguntzen eskatzaileen erregistro orokorrean izena emanda egon behar dute eta "behar bezala"

bete beharko dute eskaera orria, "zehatz-mehatz azalduz garatuko duten programa eta aurrekontua". Balorazio irizpideak hauek izango dira: aurrekontua, 40 puntu; parte hartzaile kopurua, hogeita puntu; jardueraren finantzazio tasa, hamabost puntu; ekimenak egin duen ibilbidea edo errotze maila, hamar puntu; antzeko proposamenekiko koordinazioa, hamar puntu; eta entitatearen edo konpartsaaren fidagarritasuna, bost puntu.



lazo sanpedroetako haurren txupinazoa. TXINTXARRI

# Lau greba egun egingo dituzte Michelin Lasarten

Enpresa batzordea hitzarmen kolektiboa negoziatzen ari da eta iragarri du bertan ordezkariak duten atal sindikalek (LAB, ELA, UGT, CSI eta CCOO) hiru puntuko akordio bat lortu dutela. Besteak beste, mobilizazio egutegi bat prestatu dute

## Txintxarri

Michelin Lasarteko Enpresa Batzordeak erdietsi duen akordioak hiru puntu jasotzen ditu. Lehenengoa, talde eragile horretan adostutako plataforma bateratua defendatzea hitzarmen kolektiboaren negoziazio mahaian, gai hauei dagokienez: soldata kontzeptu guztiak inflazioarekin lotzea; galdutako erosahalmena berreskuratzeko aldera, ordainsariak igotzea; sarrera soldata aldatzea batzordean jasotako baldintzen arabera; eta talde horrek hileroko ordainketa sistemari buruz jasotakoari erreparatzea, batez ere, hasierako gutxieneko soldadari dagokionean. Bigarrenez, adierazi dute akordioak langileek berretsiko dituztela erreferendum lotesle baten bidez, eta, azkenik, mobilizazio egutegi bat osatu eta adosteko konpromisoa hartu dutela.

Horren harira, enpresa batzordeko kideek jakinarazi dute ondu dutela mobilizazio agenda bat, eta horren barruan daudela ekainean eta uztailan zehar aurrera eramango dituzten lau lanuzte egun.

Lehenik eta behin, hilaren 17an eta/edo 24an elkarretaratzeak egingo dituzte



Michelingo langileen protesta ekintza bat, enpresa atarian. TXINTXARRI

lantegi atarian. Negoziazio mahaiko kideak joango dira; gainerako lantegi edo Zentroarteko Batzordearekin ekintzaren bat koordinatzeko aukera ez dute baztertu. Bigarrenez, lau greba egun egingo dituzte: ekainaren 5a eta 19a nahiz uztailaren 10a eta 11 izango dira. Hirugarrenez, ekainean eta uztailan aktiba daitezkeen balizko txandetan prebentziozko grebarako deialdiak egingo dituzte. Bestalde, jakinarazi dute negoziazio mahaia atzo bildu

zela berriro enpresarekin, hilak 11, hitzarmen kolektiboa negoziatzen jarraitzeko.

## Mobilizazioak

- **Lau greba egun:** ekainak 5 eta 19 zein uztailak 10 eta 11.
- **Elkarretaratzeak:** hilaren 17an eta/edo 24an.
- **Prebentziozko deialdiak:** ekainean eta uztailan aktibatuko diren txandetan.



Usurbilgo Lanbide Eskola, goitik. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

## Ostalaritza arloko Goi Mailako ziklo bat eskainiko du ULEk

Lanbide Heziketan izena emateko azken eguna hilaren 26a izango da, ostirala. Eskaintza zabala prestatu dute

## Txintxarri

Usurbilgo Lanbide Eskolan (ULE) ikasi nahi dutenek hilaren 26a baino lehen egin beharko dute aurrematrikula. Zentro horretako arduradunek azpimarratu dutenez, "ibilbide luzea" duten zikloez gain berri batzuk eskainiko dituzte 2023-2024 ikasturtean. Horietako bat izango da Ostalaritzako Goi Mailakoa, Gipuzkoako sare publikoko aurrenekoa: Jatetxe Zerbitzuetako Zuzendaritza. "Alor horretan prestatu nahi zutenek eremu pribatura edo beste lurralde batera joan behar izan dute orain arte". Zubietan dagoen zentroan eskainiko duten zikloaren helburua da ikasleak gai izatea jatetxe oso bat zuzentzen: bezeroei arreta egitea, menuak prestatzea, *maitre* eta *sommelier* lanak, hornitzaileen kudeaketa eta beste hainbat.

Informatikan ere izango da berritasunik: Web Aplikazioen Garapena eta Plataforma Anitzetako Aplikazioen Garapena ikasgaiak izango dituzte aukeran ikasleek datorren kurtsorako.

## Berritu, "sustraiak ahaztu gabe"

ULEko arduradunek zehaztu dute sare publikoa hornitzen jarraitze aldera aurkeztu dituztela ziklo berriak, baina "sustraiak ahaztu gabe". Xedeak hauek dira: erronketan oinarritutako prestakuntza, talde lana eta gaitasun pertsonalak nahiz profesionalak garatzea.

Aurrematrikulazioari eta zikloei buruz gehiago jakin nahi duenak 943-36 46 00 telefono zenbakira deitu edo [www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus) webgunean sartu behar duela ohartarazi dute. Izena emateko azken eguna, esan bezala, hilaren 26a izango da, ostirala.

# Amaiur!

## Libera State

Komiki-liburuaren aurkezpen ekitaldia  
Asisko Urmenetaren eskutik

Maiatzak 18, osteguna  
19:00 Andoain  
Peña Santa Krutz elkarte

Antolatzaile



Laguntzaile





Zahar egoitzako fisioterapeutak gidatutako gimnasia saioaren lekuko izan zen TXINTXARRI; saio atsegin bezain hunkigarria. TXINTXARRI

# Elkar zaintzeko ez dago adinik

Gazte eta zahar lasarteoritarren arteko harremanak sustatzeko asmoz jarri dute martxan, ikasturte honetan, belaunaldi arteko programa. Sasoeta ikastetxea da horren arduradun, eta Atsobakar zaharren egoitzarekin ari dira elkarlanean

## Maddi Zaldua

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasle gaztetxoak eta Atsobakar zahar egoitzako egoiliarren irribarreak, euren arteko begirada konplizeak, elkarlana eta zaintza. Hori guztia eta askoz gehiago ikusi ahal izan du lerro hauek idazten ari den kazetariak Atsobakar

egoitzan, berriki. Belaunaldi arteko harremanak sustatzeko programa bat aurrera eramaten ari dira bi entitateak, eta egitasmo horren barruan aurrera eraman duten saio baten lekuko izatea plazer handia izan da, hunkigarria.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Hezkidetza Batzordeak hartu zuen

ekimen hau martxan jartzeko erabakia, "Lehen Hezkuntzako ikasleen eta zahar egoitzako egoiliarren arteko harremanak sortzeko helburuz". Hala, herriko zahar egoitzari luzatu zion elkarrekin aritzeko gonbita, eta horrek proiektua begi onez ikusita, martxan jarri dute. Astean bitan

## "Aukera ederra da estereotipoak astindu eta elkar zaintzeko"

### ATSOBAKAR ZAHAR EGOITZA LANGILEAK

Atsobakar egoitzako langileek "balorazio positiboa" egin dute programarekiko. Nabarmendu dute aukera "paregabea" eskaintzen diela belaunaldi arteko herritarrek elkar ezagutu, horien arteko elkarlana sustatu, eta, batez ere, zahar egoitzen gaineko "estereotipoak astintzeko". Azpimarratu dute Atsobakar beti dagoela herriari eta herritarrei irekia: "Hori da gure helburuetako bat, komunitatean integratuak egotea. Ahal dugun aldiro

irteten gara plazara, baina, batez ere herria etortzen da gugana". Gogoan izan dituzte euren jarduerak egitera joaten diren elkarte, talde eta gainerako herritar guztiak, baina, tarte hau Sasoetako haurrekin egiten ari diren lanketari eskeinia dagoenez, hortan jarri dute arreta.

Aipatu dute esperientzia "oso baliagarria" izaten ari dela parte hartzaileentzat, batez ere ikasleek, egun dituzten aukerak "balioan jartzeko", eta, nola ez, elkarrekiko



TXINTXARRI

elkartzen dira ikasleak egoiliarrekin; behin egoitzako eguneko zentroko erabiltzaileekin eta beste behin, zahar egoitzakoekin.

"Oso esperientzia polita" izaten ari dela nabarmendu du Saioa Alzaga Gibajak; ikastetxeko aholkularia da, eta egitasmoaren koordinatzailea ere bai. Gaineratu du ikasleak "gogo biziz" joaten direla saioetara, eta "oso pozik" irteten direla horietatik. Kontatu du baita ere, zahar egoitzako egoiliarrak eurak noiz iritsiko zain topatzen dituztela aldiro, eta horrek "poztasun handia" eragiten diela ikasleei: "Ikasle eta adinekoen arteko harreman oso polita sortzen ari da. Goxotasunez tratatzen dute elkar, eta hori ederra da".

Azpimarratu du, saio horietatik at, ikasleek egunerokoan gogoan dituztela egoitzan ezagututako herrikideak, eta "gero eta gogo gehiagorekin" itxaroten dutela haiengana joateko hurrengo hitzordua.

Bizi esperientziak kontatu zizkioten elkarri Aste Santua baino lehen egin zuten lehen saioan, eta egoitzako fisioterapeuta Bego Lozanok gidatu zuen bigarrena; gimnasia saioa. Ikasturte amaierara bitarte etorriko direnak ere diseinatuta dituzte.

## Jarraitzeko asmoa

Ikasturte honetan martxan jarri duten proiektua da, berria, hortaz, estreinakoz ari dira bizitzen esperientzia. Lehen aldia izanagatik, "gogotsu" agertu da koordinatzailea datorren urtean ere bide berari eusteko: "Froga gisa jarri genuen martxan, eta uste baino askoz emaitza hobea izaten ari da; datorren urtean egitasmoarekin jarraitzea da asmoa.

errespetuaren eta zaintzaren garrantziaz jabetzeko: "Egoiliarrek haurrak zireneko bizipenak kontatu zizkien lehen saioa txundigarria izan zen ikasle askorentzat; ezin imajina zitzaizkien testigantzak jaso zituzten". Kontatu dute baita ere "sekulakoa dela" haurrek adinekoengan eragiten duten estimulua: "Egunerokoan zaintza jasotzen dutenak, zaintzaile bihurtzen dira ikasleak etortzen direnean. Sekulako jarrera aldaketak antzematen ditugu". Denak ala denak "pozik" agertu dira proiektuarekin, eta hortik jasotzen ari diren guztia erekin.



TXINTXARRI

## "Pozik joaten gara egoitzara"


### SASOETA-ZUMABURU IKASTETXKO IKASLEAK

#### Gustura parte hartzen duzue egitasmoan?

Oso gustura eta pozik joaten gara Atsobakar egoitzako egoiliarrengana. Jolastu egiten dugu beraiekin, eta barre asko egiten dugu elkarrekin.

Lasarte-Orian bizi dira, gu bezala, eta gehienak nortzuk ziren ez genekenez, elkar ezagutzeko aukera ere eman digu.

Beti dugu itzultzeko nahia; gogoz itxaroten dugu hitzordua hori.



TXINTXARRI

## "Oso gustura parte hartzen dut saioetan"

### PATXI MANCHADO EGOITZAKO EGOILIARRA

#### Gustura parte hartzen duzue egitasmoan?

Oso gustura parte hartzen dut egitasmoan; izugarri gustatzen zait haurrekin egotea. Oso ondo ikusten dut gaztetxoak gugana etorri eta elkarrekin saioak egitea. Min guztiak ahazten ditut etortzen direnean, eta, iruditzen zait, gu bezala, eurak ere oso gustura ari direla. Etorrizunean ere proiektuarekin jarraitzea gustatuko litzaidake.



'Euskara eta gazteak, 30 urte eta gero zer?' ikerketa liburuaren berri eman du Jon Antxordokik (eskuinean). TXINTXARRI

# Teoriatik praktikara jauzi egin dute XV. Udaltopen

laz bezala, 16 urte arteko nerabeengan fokua jarri dute aditu eta arituek udaletako Euskara zerbitzuen topaketan, kultur etxean. Lasarte-Oriako Udalak iragarri du liburu bat ondu duela Miren Artetxe ikerlariarekin batera: 'Euskara eta gazteak, 30 urte eta gero zer?'

## Txintxarri

*Bat, bi, hiru... Eskolaz kanpoko euskaratik eta euskaraz* lemapean aurrera eramaten ari dira XV. Udaltop topaketak, Manuel Lekuona Kultur Etxean. 160 pertsona inguru ari dira saioak aurrez aurre jarraitzen, eta gainerakoak, sarean. Bigarren eta azken jardunaldia gaur egingo dute, hilak 12, eguerdira arte.

Iazko topaketaren segida izaten ari da aurtengoa, izan ere, 16 urteko nerabeei begira jarri dira berriro: gazte horiei zuzendutako hizkuntza politika eraginkor bat prestatzeari buruz teorizatu zuten joan den urtean; aurten, adibide praktikoak erakusten ari dira. Horren adibide, Iñaki Arruti

herritarrak eta Eider Gurrutzagak aurkeztu duten diagnostiko tresna, udalerrri bakoitzeko eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen ezagutza eta erabileraren argazkia egingo duena. Udazkenerako prest izan nahi dute.

## Ikerketa liburu

Titular asko uzten ari da aurtengo Udaltop. Horietako bat da irekiera ekitaldian Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik bota duena: departamentu horrek liburu bat ondu du Miren Artetxe ikerlariarekin batera: *Euskara eta gazteak, 30 urte eta gero zer?*. Gako ugari jaso dituzte lan horretan, adibidez, hau: "Gaur

egun, euskara ikastea agindu gisa hartzen dute gazteek. Aldatu egin behar dugu hori; aisialdian dago gakoa", nabarmendu du Antxordokik.

Esan bezala, alor praktikoan jarri dute fokua aurten, eta horren beste adibide bat da tokian tokiko haur eta gazteen kirol sistemetan euskararen erabilera areagotzeko eredu sistematizatuak pilotatzeko proiektua. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estitxu Alkorta aritu da horri buruz, Amorebieta-Etxano udaleko teknikari Rafa Ugalde eta KEES Metodologiako kide Aritz Olagoirekin batera.

## Hilaren 19a izango da aurrez matrikulatzeko azken eguna

Datorren ikasturtean Udal Musika Eskolan ikasi nahi dutenek ikastaro eskaintza zabala izango dute aukeran

## Txintxarri

Udal Musika Eskolako arduradunek jakinarazi dute aurrematrikula egiteko azken eguna hilaren 19a izango dela, ostirala. Interesa dutenek kultur etxeko bigarren solairuko

administrazio bulegora joan beharko dute eskaera egitera. Ikastaroaren prezioaren %10 ordaindu beharko dute une horretan –eskaintzak eta ordaindu beharreko prezioak [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian kontsulta

ditzakezue. Matrikulak geroago egingo dituzte, ekainaren 12tik 23ra hain zuzen ere. Tasak helbideratze bidez kobratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak. Bestalde, ezagutarazi du herritarrek aukera dutela hobariak eskatzeko, baldin eta langabezian badaude, GLL laguntza kobratzen badute edo familia ugaria badira.

Zalantzak argitu edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek mezu bat bidali beharko dute [musikaeskola@lasarte-oria.eus](mailto:musikaeskola@lasarte-oria.eus) helbide elektronikora.



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

## Une bateko aldaketak

Ezustean, zure egunerokotasun errepikakorrek 360 graduko bira ematen du. Eta momentu horretan, mundua gainera erortzean, konturatzen zara zein txikia eta zaugarria zaren.

Txikitasun honetan murgildurik, bizitza honetara zertara etorri naizen galdetzen diot behin eta berriz neure buruari. Dugun denbora finitu hau, nola bizi dugu? Ezinegon honen barnean ohartu naiz etorkizunean "zerbait" lortzearen menpe bizi naizela. "Zerbait" hori zer den jakin gabe ere, egunez egun menpeko sentitzen naiz.

Bizitza une bat besterik ez da, ez gara betirako hemen egongo, eta bizitzeko dugun denbora hori alferrik galtzen ari gara. Denak hasiera eta amaiera bat du. Beraz, goza dezagun momentuaz eta maite ditugun pertsona guztietaz. Ez ditzagun gure bizitzak zaildu sinpletasunean zorionsu izan bagaitezke.

Hausnarketa honetan, gaur egungo gizartea aztertzea otu zait. Ez al gara geroz eta indibidualistagoa den gizarte batean bihurtzen ari? Ez al digute teknologiak eta sare sozialek gizatasuna kentzen?

Emozioak galtzen ari gara, ia desagertzera. Mugikorrek batera baxu dugula ikusteak dar-dar eragiten digu, eta ez belarrira xurxulatzeak. Garrantzia gehiago ematen diogu pantaila atzean dagoen bihotzari, bular barruan dugunari baino. Sare sozialetan mila like nahiago ditugu begietara begira maite zaitut esatea baino.

Zer egingo zenuke gaur zure azken eguna izango dela jakingo bazenu? Guk ezin dugu erabaki noiz jaio eta hiltzen garen, beraz, ezin dugu aukeratu zenbat denbora izango dugun bizitzeko. Baina bai nola bizi nahi dugun.

Nire txikitasun eta zaugarritasunetik, gogoeta honetan bueltaka jarraitzen dudana arren, nire denborak duen balioaz ohartu naiz, eta beraz, nire denbora nola eta zeinekin gozatu argi daukat. Ba al dago ondo maite gaituzten pertsonen denbora oparitzea baino gauza xume eta politgorik?

## Udaberriko Festa Oriarten egingo dute

Erdiguneko kale batzuetako bizilagunek Udaberriko Festa ospatuko dute bihar, hilak 13. Iñigo de Loiola kaleko plazan aurrera eraman behar zituzten jarduerak, baina eguraldi txarra

iragarrita dagoenez, festa Oriarte Landaberri instituturara eramatea erabaki dute.

Dianarekin hasiko dira ospakizunak, 10:00etan. Goiz eta arratsalde hamaika jarduera egingo dituzte, giro ederrean. DJ Karpin arduratuko da jaia amaitzeaz, disko festa batekin.

## Ikastaroak eta tasak

Ikastaroa	Erroldatuak	Ez erroldatuak
Musika txokoa	297,50 euro	357,85 euro
Hizkuntza musikala	297,50 euro	357,85 euro
Musika instrumentua	297,50 euro	357,85 euro
Hizk. mus. + Instr.	551,10 euro	668,80 euro
Instrumentu taldea	98,20 euro	119,30 euro
Txistua edo akordeoia	232,90 euro	-----

INFORMAZIO GUZTIA, [WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS) ATARIAN

# Bihotza, sabela bezain beteta joan naiz etxera

Intza Kilota Elkartek Jakitea elkarteko sukaldari trebe ugari gonbidatu ditu Sagardotegi kaleko egoitzara. Afari berezi bat prestatu dute horiek guztiek, Pilota sailarentzat dirua biltzeko helburuarekin. Hitzordu horren lekuko izan da TXINTXARRI

## Maddi Zaldia

Banuen hitzorduak mereziko zuen susmoa, eta baieztatu da hori Intza Pilota Elkarteko atea gurutzatu bezain laster. *Mmmmm...zer nolako usain goxoa* pentsatu dut, eta jarraitu, sarrerako pasabidean barrena.

Iritsi naiz elkarteko sukalde eta jantokiak bat egiten duten espaziora, eta han topatu ditut Patricio tabernako Yon Pavon, Avenida Tabernako Yon Mikel Rodriguez eta Aldanondo erretegiko Mikel Mayan; azken bi horiek bakoitza bere kazolak astintzen. *Mmmmm, zer usain ederra*, pentsatu dut beste behin... *ze itxura duen begi aurrean dudan guztiak!*

Apurka-apurka hasi dira iristen afaltzera zetozen herritarrak. Horiek ez ezik, agertu dira Abend Kafe Antzokiko sukaldari Ion Pagola, Lasarte-Oriako herriko etxeko Javi Penas, Tripontzi Tabernako Igor Muñoa, eta Aratz Erretegiko Xabier Zabaleta. Postrea azkena jan ohi denez, tartetxo bat geroago ekarri du hori txokolate eta gozoaren maisu Rafa Gorrotxategik.

Afaria dastatzera joandakoek hartu dute lekua mahaian. Sukaldarien (antolatzailea ere tartean) talde argazkia atera, eta bakoitza bere lanetara zuzendu



Sukaldari eta antolatzailea, afaria hasi aurretik, talde argazkia ateratzen. TXINTXARRI

da, baina zeregin horiek ere denek elkarrekin egin dituzte; izan ere, afari osoan zehar protagonistek zerbait erakutsi badute, talde bat osatzen dutela izan da, ekipo eder bat.

## Jakiak, banan-banan

Javi Penasen foie eta sagar hostorearekin eman diote hasiera afariari. Koloretako saltsekin apaindutako plateran zerbitzatu dute; txukun-txukun.

Hor genbiltzan lerrook idazten ari den kazetaria, eta argazkilari lankide bat une gogoangarri horiek izoztu nahian alde batera eta bestera, afaltzera geratzeko gonbita egin digutenean. Eskerrak eman, eta berandutu egingo

zitzaidala erantzutea baino gauza okerragorik ez zait bururatu, ordea. *Maddi, baina nola!...a zer aukera galdu duzun*, esan diot nire buruari. Nork egin diezaioke uko horrelako afari eder bati?

Abend Kafe Antzokiko sukaldari Ion Pagolaren txanda izan da gero. Pikillo piper saltsaz lagundutako porru eta ganba pastela ekarri du platerera; hori ere itxura ederrekoa.

Eta bigarren eskaintzari argazkiak ateratzen ari ginela jaso dugu lehen oparitxo. Avenidako Yonek, berak prestatutako txahal masail plater bat ekarri digu argazkilariari eta bioi, etxera joan aurretik proba genezan. Jakia hartu eta

mahaitxo batean eseri gara hori dastatzera. Eta, ustekabeen, beste erregalu bat: hostorea ekarri digu Javi Penasek. *Ai ama, ze ona dagoen hau ere!* esan diot lagun argazkilariari. Nik etxera joateko asmoa nuen, baina ordutik aurrera, apenas altxa naiz eserita nengoen mahaitik. Bat-batean, gainerako sukaldariak beren platerak zerbitzatu ahala, lagunarentzako eta biontzako bana ekartzera etorri baitira. Eta, nik, etxean zerbait ikasi badut, izan da plateran dagoena jan egin behar dela.

Jan dut Igor Muñoak prestatutako otarrainxka eta hirugihar broxeta zoragarri bat, eta hori eta gero Mikel Mayanen arrain zopa bikain bat ere bai. Xabier Zabaletak gustu handiz prestatu eta apaindutako azken aurreko plateraren txanda izan da gero: txipiroiak tintan eta Pelaio erara. *Jo, ze opari egin diguten*, pentsatzen nuen etengabe.

## Fruitu gorriak

Eta behin horraino iritsita, nola joango ginen etxera azkenburukoa jan gabe; inolaz! Rafa Gorrotxategik berak egindako postre ikusgarria bana ekarri digu. Azaldu digu esne gain eta banillaz, marrubiz eta fruitu gorritz egindako pasteltxoa zela. Noski, ezin zuen txokolaterik falta; bazuen hori ere.

Liluratuta, pozik eta batez ere eskertuta altxa naiz mahaitik, orain bai etxeratzeko asmoz. Artista gastronomikoak agurtuta hartu dut etxerako bidea, sartzeko gurutzatu dudana pasabide beretik.

Sabela bezainbeste bete didazue bihotza. Mila-mila esker, Yon, Yon Javi, Igor, Xabier, Ion, Mikel eta Rafa. Eskerrik asko, Intza.



Mikel Lizarralde, hitzaldian. TXINTXARRI

## Jendetza batu da aurtengo jardunaldietan

Balioetan Hezi jardunaldiak aurrera eramanean dituzte Danok Kidek

## Txinbarri

Amaitu da Danok Kide elkarteak udalarekin elkarlanean antolatutako Balioetan Hezi jardunaldiaren XIV. aldia. Hiru saio iragarri zituzten antolatzaileek, eta jende ugari parte du horietan guztietan.

Maiatzaren 3an, Iñaki Perez De Arrilucea Etxarri naturopata psikofisikoak *Doluaeren bidea: Esperientzia Unibertsala* hitzaldia eman zuen; horrek abiatu zuen aurtengo ekimena.

Bigarren saioa, aldiz, maiatzaren 4an izan zen, eta Mikel Lizarralde izan zen; "Bizitza aurreko bizitzaz" hitz egin zien entzuleei.

Felix Garitano elizgizonak itxi zuen jardunaldi sorta maiatzaren 5ean. Elizaren ibilbide gatazkatsua eta oraina aztertu zituen.

## Dos-i taldearen emanaldia

Danok Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak antolatu ditu. Jarduera horren barruan kontzertua emango du gaur, hilak 12, Dos-i taldeak, Ama Brigitarren komentuan, 19:30ean. Sarrera doakoa da.

Hamar abeslarik osatzen dute Dos-i, beste talde batzuetan aritu eta gero elkartu direnak. Ahots musikan oinarritutako emanaldiak egiten dituzte.



DOS-I

## Eusebio Goikouria hil da

Oso pertsona ezaguna zen herrian Eusebio Goikouria, ekitaldi sozial eta kultural ugarietan parte hartu baitzuen. Hilaren 5ean hil zen, 90 urte zituela, biriketako gaitz baten ondorioz.

Bizkaitarra jaiotzez, Rekaldeko Coca Cola-ren lantegian aritu zen urte askotan. Lasartearra elkarteko bazkide fundatzaile izan zen eta ATLOren danborradetan aritu zen urte askotan. Goian bego.



TXEMA VALLES

# GIB birusarekin nola bizi erakutsi dute

'Kanpora sartzen' antzezlaren emanaldia egin du Txaloa Produzioak-ek Manuel Lekuona Kultur Etxean. Xabin Fernandez da herritar askoren jakin-mina piztu duen obraren protagonista: seropositiboa zela jakitean bere bizitza nola aldatu zen erakusten du

## Txintxarri

Txalo Produzioak taldeak *Kanpora sartzen* antzezlaren emanaldia egin zuen hilaren 6an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Herritar askoren jakin-mina piztu zuen obrak (sarrera guztiak saldu zituzten) Xabin Fernandez du protagonista, bai oholtza gainean bai istorioan. Izan ere, duela hamarkada bat seropositiboa zela jakitean bere bizitza nola aldatu zen azaltzen baitu antzezlana. GIB birusa gorpuzteko ardura Intza Alkain herritarrak du, eta gaiak pentsaraz dezakeenaren kontra, komediatik kontatutako pasadizoz osatuta dago. Hala

ere, Fernandizi estigmak nola eragin dion erakusten du, baita kutsatuta egoteak gaitza garati eta HIESa izatea edota hiltzea esan nahi ez duela ere.

Martxo hasieran estreinatu zuten antzezlana eta geroztik herriz herri ari dira *Kanpora sartzen*-en emanaldiak egiten. Hurrengo biak Beasainen eta Markina-Xemeinen izango dira, hilaren 12an (gaur) eta 20an, hurrenez hurren.

## Jaialdia, albuma ixteko

Aipatu antzezlanean ez ezik, beste proiektu batzuetan lanean ari da Alkain. Formol Laborategia konpainiako ko hiru kideetako

bat da: besteak beste, Album obra arrakastatsurekin ibili dira antzokiz antzoki azken urteotan. Duela hilabete pasatxo iragarri zuten azken bira, bihar amaituko dena, hilak 13, Erreterian: Nire Bizitzarekin Ez Dakit Zer Egin Fest aurrera eramango dute, jaialdi kutsuko ospakizuna hain zuzen. 20:00etan izango da, Lekuona fabriketan. Antolatzaileek jakinarazi dute sarrera gutxi geratzen direla salgai.

Jaialdia izan da, Formoleko kideak ez dira bakarrik egongo. Merina Gris, DJ Miau, Elektropottotte eta beste artista batzuk gonbidatu dituzte.



Xabin Fernandez da 'Kanpora sartzen' antzezlaren protagonista. TXINTXARRI



Intza Alkain herritarrak (ezkerrean) birusa gorpuzten du. TXINTXARRI



ehbildu



# Maitte duzun Gipuzkoa

Bizitzak ez du preziorik.

Fakturek bizitza baldintzatu ez diezaguten.

EGINGO  
DUGU.



# «Oso erraza da abizenak euskarazko grafiara aldatzeko prozesua, bost minutuko kontua»

Andoingo bake epailea da Ramon Iriarte, eta berak azaldu digu zein diren 'Apelliduak abizentzeko' eman beharreko pausoak eta aurkeztu beharreko agiriak. Nork bere herriko bake epaitegira joan behar du, eta momentuan egingo diote aldaketa.

## Txintxarri ESKUALDEA

"Oso erraza eta azkarra" da *apelliduak abizentzeko* prozesua; abizenak euskarazko grafiara aldatzekoa, alegia. Hala azaldu digu Ramon Iriartek, Andoingo bake epaileak. Izan ere, abizena euskaratu nahi duenak, bere herriko bake epaitegira joan behar du horretarako, eta momentuan egingo dute prozedura, betiere irizpide batzuen arabera. Aurkeztu beharreko agiriak edota onartuta dauden aldaketak eman dizkigu aditzera bake epaileak; eta gomendioa luzatu du, aldaketa "gaztetan" egiteko, gerora gauzak erraztuko dizkigulako.

## Martxan jarraitzen du 'Apelliduak abizendu' kanpainak...?

Bai, eta aurten dagoeneko lau dira abizena euskaraz jartzeko eskaera egin dutenak Andoainen, aurreneko lauhilekoan. Hasieran izan zen kolpea, abizenak euskaratzeko aukera zabaldu zenean, 2000. urtean. 30 bat eskaera izango genituen orduan. Baina gerora ere jarraitu dute etortzen, tarteka. Kontutan hartu behar da, seme-alabak adin txikikoak badira, gurasoek abizena aldatuz gero haiei ere aldatzen zaiela, eta beraz, espediente bakarrean egiten dela aldaketa guztia. Gerora ez dute beraiek egin behar berriro.

## "EUSKALTZAINDIAREN IRIZPIDEEN ARABERA JOKATZEN DUGU, BAINA HORIEK ALDATUZ DOAZ. GAUZA BIZIA DA HIZKUNTZA"

## Nolakoa da abizena euskaratzeko prozesua?

Oso erraza da. Bake epaitegira agertu behar duzu, bakoitza bere herriko; eta bost minutuko kontua izaten da. Ekarrri behar dira nortasun agiriaren kopia; errolda agiria, erakusteko herrian erroldatuta zaudela; eta jaiotza agiria edota aldatu behar duzun beste edozein agiri, ezkontza agiria adibidez. Horrela, aldaketa bideratzen da agiri guztietara. Bake epaitegian begiratzen dugu eskatutako aldaketa onartuta dagoen, eta momentuan egiten dugu.

## Zein aldaketa daude onartuta?

Euskaltzaindiak esaten duenaren arabera jokutzen dugu. Muga batzuk daude, eta ezin dugu onartu edozein aldaketa. Dena den, Euskaltzaindiaren irizpideak aldatuz doaz, egokitzeak. Adibide xelebreena Mujika abizenarena izango da. Múgica, Euskaltzaindiak Muxika gisa itzultzen du, *j* beharrean *x* erabilia. Orain onartuta dago *j*-rekin, baina hasieran ez. Eta jendeak esaten zigun *j*-rekin eta *k*-rekin nahi zuela, ez *x*-rekin, baina Euskaltzaindiak ez zuen onartzen.

Gainera, jatorri euskalduna duten abizenak euskaratu daitezke, ez jatorri erdalduna dutenak. Rodríguez abizena, esaterako, ezin da euskaratu eta *u* hori kendu. Eta erderazko abizenen itzulpena ere ezin da egin: Huertas abizena daukanari, ezin diogu Baratzak jarri, ez dauka zentzurik. Jatorri euskalduna duten abizenetan, hizkiak aldatu eta euskarazko grafiara ekartzea da *Apelliduak abizendu* egitasmoaren helburua.



Ramon Iriarte, Andoingo bake epailea, bere bulegoan. Bertan egiten dute abizenak euskarazko grafiara aldatzeko tramitea, modu azkarrean.

## Zein senideri eragiten dio norberak abizena aldatzeak?

Pertsona baten abizena aldatzean, seme-alabei aldatuko zaie baita ere, baina adin txikikoak badira bakarrik. Adin nagusikoen kasuan, beraiek eskatu beharko dute aldaketa. Gainerako senideei ez die eragiten aldaketak. Esaterako, zuk abizena aldatuz gero, zure anaiari ez zaio aldatuko, berak etorri beharko du. Bakoitzak eskatu behar du berea.

## Abizena aldatu ondoren, gainerako dokumentazioan ere egin behar duzu aldaketa?

Bai, hori norberak egin behar du gero. Nortasun agiria berritzera zoazenean, eraman behar duzu agiri bat, adierazten duena abizena euskaratu duzula, eta aurrerantzean beste modu honetara idatziko dela. Agiri hori bake epaitegian bertan emango diegu. Eta kasu batzuetan, bertan jaiotakoak ez izan arren, aukera baldin badaukagu jaiotza agiria ikusteko, eman diezaiokegu.

Baina norberak eskatu behar du aldaketa gero, nortasun agiria berritu behar duzun hurrengo

aldian. Adibidez, aurrekoan etorri zitzaidan gizon bat bake epaitegira, abizena euskaratzera. Etxeokok esaten zioten, bera bakarrik falta zela abizena euskaratzeko, NANean gaztelaniaz ikusi ziotelako. Begiratu genuen, eta esan nion dagoeneko euskaratua zeukala abizena, 2001. urtean edo. Kontua da, aldaketa egin ondoren, ez zuela NANean ere aldatu.

## Komeni da ahalik eta azkarren egitea abizena euskarazko grafiara aldatzeko tramitea?

Nik gomendatzen dut gaztetan egitea. Printzipioz, ez litzateke arazorik egon beharko gerora ere; baina demagun etxebizitza erosi duzula, eta eskritoretan azaltzen dela euskaratu gabeko abizena. Gerora abizena aldatuta, arazoak sor daitezke, zu ote zaren eskritoretan ageri dena, eta agiri gehiago aurkeztu beharko dituzu agian, pertsona bera dela egiaztatzeko. Gaztetan egiten agertuko dira abizenak euskaratuta, eta ez duzu arazorik izango.

## Abizena ez ezik, izena ere alda daiteke, ezta?

Bai, izenarekin ere berdin. Gainera, izenekin bi kasu ezberdin daude: izena euskaratzea, edo aldatzea. Jesus Maria bazara, euskaratuta izango zara Josu Mirena. Baina Josu bakarrik jarri nahi baduzu, orduan aldaketa bat egitea da. Alegia, Mirena kentzea aldaketa da. Baina biak egin daitezke, eta erraza da. Kasu horretan ere, Euskaltzaindiaren arabera jokutzen dugu, ezin da edozein aldaketa onartu. Baina, esan bezala, egokituz doaz irizpide horiek ere: gauza bizia da hizkuntza, ez da zerbait finkoa, kaxa batean sartuta dagoena; eta hasieran sartzen ez ziren izen pila bat, onartuta daude orain.

## Doakoak dira tramite horiek?

Bai, doakoak dira. Epaitegietako prozedurak doakoak dira, orain arte. Leku bakarretakoa izango da. Beraz, abizena euskaratu nahi dutenek, prozesua zaila edo garestia denik ezin dute esan; aitzakia hori, behintzat, ezin dute erabili.





# Milaka 'apellidu abizentzeko' aukera, Buruntzaldeko udalen ekimenari esker

Azkeneko hamabost urteotan, mila herritar inguruk euskaratu dute beraien izena edo abizena Buruntzaldean, eta hori sustatzen jarraitzen dute eskualdeko sei udalek, elkarrekin, 'Apelliduak abizendu' ekimenaren baitan.

Badira urte batzuk, *Apelliduak abizendu* ekimena martxan jarri zutela Buruntzaldean. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, euskararen arloan elkarrekin aurrera eramaten dituzten ekimenetako bat da, tokian tokiko bake epaitegiekin lankidetzan. 2000. urtetik dago abizenak zuzenean euskalduntzeko aukera, erregistro zibilaren legearen 40/1999 erreformak ahalbidetu baitzuen hori; ordura arte, abizenak aldatzeko prozeduraren bitartez egiten zen. Orduruz geroztik, makina bat izan dira apelliduak abizentzera animatu direnak: Echeverria, Aguirre, Lecuona edo Erquicia izateari utzi, eta Etxeberria, Agirre,


Lekuona edo Erkizia izatera pasa direnak, besteak beste.

Izan ere, hala nahi duenak oso erraz egin dezake aldaketa, nork bere herriko bake epaitegian. Hiru agiri eraman beharko dira: errolda agiria, udaletxean eskatu behar dena; jaiotagiri ofiziala, jaioterriko bake epaitegian bertan eskuratu beharrekoa; eta NANaren fotokopia. Ezkonduek edota seme-alabak dituztenek, Familia Liburua ere eraman beharko dute. Horiekin Bake Epaitegira bertaratu, eta han bertan egingo dute abizenaren aldaketa, oso tramite simplea baita egin beharrekoa. Gainera, edozein zalantza izanez gero, Bake Epaitegian jaso daitezke argibide guztiak.

Euskaltzaindiak onartutako aldaketak dira egin daitezkeenak, eta horiek ikusteko aukera dago bere webgunean bertan ([www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)), *Hizkuntzabaliabideak* arloko *Onomastika* atalean, deituri eskainitako txokoan. Milaka abizen ageri dira zerrendan, euskaldunduta.

## 59 izen eta abizen euskaratuta Buruntzaldean, 2022an

Milaka abizen dira euskaldundu daitezkeenak, eta izenak euskarara ekartzeko aukera ere badago Bake Epaitegietan. Horrela, ehunka izan dira izena edo abizena euskaratu dutenak, Buruntzaldean: azkeneko hamabost urteotan, mila inguru; eta urte horietako batzuetan, ehundik gora.



Euskaltzaindiaren webgunean aurkitu daitezke, abizenak euskaratzeko onartuta dauden aukerak.

Oso esanguratsuk dira datuak, kontutan hartuta urte asko pasa direla abizenak zuzenean euskalduntzeko aukera zabaldu zenetik. Andoainen, esaterako, 210 izan dira izena edo abizena euskaldundu dutenak, 2010etik 2022ra bitartean. Astigarragan, berriz, 101 lagunek egin dute aldaketa epealdi berean, eta 171 izan dira Urnietan. Antzeko kopurua izan da Usurbilen ere, 164 lagunek ekarri baitute izena edo abizena euskarara (2011tik 2022ra). Eta Lasarte-Orian, 129

lagunek baliatu dute aukera hori (2012tik 2022ra bitartean).

Gainera, oraindik ere martxa polita darama ekimenak. Joan den urteko kopurua ikusi besterik ez dago horretarako: 59 herritarrek egin zuten izen edo abizen aldaketa, euskaratzeko. Horietatik 16 izan ziren Andoainen, eta 13 Hernanin.

Urtearen herena gainditu berri dugu, baina aurrean ere ari dira eskaera ugari jasotzen eta aldaketak egiten, eskualdeko Bake Epaitegietan.

# Apelliduak abizendu

## Aurkeztu beharreko agiriak:

- Errolda agiria
- Zure udaletzeko bulegoetan egingo dizute.
- Jaiotzagiri literala
- Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute.
- Donostian erregistratuta bazaude,
- Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Kalkutako Teresa plaza z/g 943 000 730).
- NANaren fotokopia
- Famili liburua
- Ezkonduta egon edo seme-alabarik izanez gero.

## Egin beharrekoa:

- Aipatutako agiriak bildu eta herriko Bake Epaitegira joan. Bertan egingo dizute aldaketa.
- Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

- Andoain: 943-30 08 20
- Astigarraga: 943-33 52 36
- Hernani: 943-55 28 36
- Lasarte-Oria: 943-37 16 29
- Urnieta: 943-00 83 45
- Usurbil: 943-37 23 36



Buruntzaldea  
euskaraz

Andoain, Astigarraga, Hernani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udaleko Euskara Batzordeak

Diseinua: Katala

Aguirre  
Amézaga  
Aramburu  
Arrechea  
Arregul  
Azcarate  
Bengochea  
Bordaberry  
Churruca  
Echarri  
Echeverria  
Egulguren  
Escudero  
Golcochea  
Gorrochategui  
Gurruchaga  
Iñarregui  
Iparraguirre  
Izaguirre  
Lascurain  
Lerchundi  
Mendivil  
Michelena  
Ochoa  
Ollaquegui  
Sagastizabal  
Urretavizcaya  
Vialn

Agirre  
Ametzaga  
Aranburu  
Arretxea  
Arregui  
Azkarate  
Bengoetxea  
Bordaberri  
Txurrutxa  
Etxarri  
Etxeberria  
Egiguren  
Eskudero  
Golkoetxea  
Gorrotxategi  
Gurrutxaga  
Iñarregui  
Iparraguirre  
Izaguirre  
Laskurain  
Lertxundi  
Mendibil  
Mitxelena  
Otxoa  
Olloklegui  
Sagastizabal  
Urretavizcaya  
Blain

# Eguzkiko infantila, txapelketaren bila

Lauburu Ibarra garaitu du Gipuzkoako txapelketako bigarren faseko azken jardunaldian. Finalerdietara sailkatu da eta irabaziz gero, hilaren 28an finala jokatuko luke. Eta Euskadiko Eskolarteko Jokoetan Gipuzkoa ordezkatzeko du hilaren 20an

## Txintxarri

Eguzki Aretto Futbol taldeko infantil taldeak Gipuzkoako txapelketako finalerdietara txartela eskuratu du. Hilaren 6an, Lauburu Ibarren aurka jokatu zuen bigarren faseko azken jardunaldia. Lehen zatian zailtasunak izan arren, etxeko taldeak 5-1 irabazi zuen.

Lehen zatian bi taldeen arteko indarrak parekatuta egon ziren. Baloien jabetza mantentzeko arazoak izan zituen etxeko taldeak eta markagailuan ere horrela ikusi zen; bana berdindu zuten.

Atsedenaldiaren ostean, aldiz, Laburu Ibarra jokalariek lehen zatiko esfortzua sumatu zuten. Ondorioz, Eguzkiko jokalariek lasaia jokatu ahal izan zuten



Eguzki AFko infantil taldeko jokalaria erasoan. TXINTXARR

eta aukerak baliatuz garaipena erdietsi zuten.

Irabazi izanak ligako azken faseko sailkatu du taldea eta hitzorduz betetako asteak dituzte aurretik Redondoren jokalariek.

Hilaren 14an, Gipuzkoako txapelketako finalerdia jokatuko dute Maialen Chourraut kiroldegian; aurkaria ezaguna dute, Lauburu Ibarra. Neurketa gaituzte gero, hilaren 28an,

finala jokatuko lukete; oraindik zehazteke dago lekua.

Hilaren 20an, Eguzkiko taldea Zumarragan Gipuzkoaren izenean lehiatuko da Euskadiko Eskolarteko Jokoetan. Araba eta Bizkaiko ordezkarien aurka jokatuko dute gazteek. Garailea Espainiako txapelketako multzo lehiarako sailkatuko da.

## Gainerako taldeak

Ez da denboraldiari amaiera eman dion Eguzkiko talde bakarra izan. Gainerako mailetan ere azken jardunaldiko norgehiagokeri egin diete aurre.

1. Mailako Eguzki Rehabilitaciones taldeak garaipena eskuratu zuen Lazkao Gaur Logistika taldearen aurka eta sailkapeneko 11. postuan amaitu du denboraldia.

Eguzki ISU Leihok taldeak Jaixkiareto izan zuen aurrez aurre eta bosnako berdindu zuten. Azken bi hitzorduetan puntuak lortu arren, sailkapeneko azken postuetan da.

Gazteen mailako taldeak apirilaren 23an esan zion agur kopako txapelketari eta denboraldiari. Bere multzoko bosgarren sailkatu zen eta ezin izan zen asken faserako sailkatu.



Iraia Iparragirre, entrenamendu saio batean. REAL SOCIEDAD

## Iparragirrek agur esango dio futbol profesionalari

Iraia Iparragirre Argandoña herritarrek mailarik gorenean zortzi urtez lehiatu ondoren, bere futbol ibilbidea amaitzeko erabakia hartu du. Ekainaren 30ean amaituko du Realarekin duen kontratua. Guztira, zortzi denboraldi eta 108 partida jokatu ditu talde txuri-urdineko kapitainak. Garaipen ugari lortu ditu taldearekin, tartean 2019 urtean Erreginarekin kopa altxa zuen. Denboraldiari amaiera emateko bi hitzordu geratzen dira eta ilusioz aurre egingo die jokalariek.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Tolosa CF B - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:30. Elorri, Alegian.
<b>GORENGOEN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Real Union Club SAD C</b> Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Irule Bosteko KK - Ostadar SKT</b> Igandea. 18:30. Matigoxotegi, Donostian.
<b>OHOREZKO JUBENIL MAILA</b>
<b>Real Union Club SAD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Gal, Irunen.
<b>JUBENIL 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Ostadar SKT B - Intxurre KKE</b> Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENIL 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Usurbil FT B - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 16:00. Harane, Usurbilen.
<b>Urnieta KE B - Ostadar SKT C</b> Larunbata. 18:00. Urnietan.
<b>OHOREZKO KADETE MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Antiguko KE B</b> Larunbata. 17:45. Michelin kirol gunean.
<b>KADETE 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT B - Santo Tomas Lizeoa B</b> Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
<b>Arrupe Chaminate CD D - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 12:45. Felix Garin, Donostian.
<b>Antigua Luberrri KE B - Ostadar SKT C</b> Igandea. 13:50. Berio, Donostian.

<b>OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT - Mariño CD</b> Larunbata. 10:00. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIK TXIKI, KOPA</b>
<b>Allerru KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 09:00. Plazeta, Lezon.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>INFANTIL MAILA, AZKEN FASEA</b>
<b>Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra</b> Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA, KANPORAKETAK</b>
<b>Goizper Group BKE - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:00. Labegarieta kiroldegia, Bergaran.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Goierri Oxykor</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTIL ERRENDI. ZILAR, 2. FASEA</b>
<b>Ostadar Urdina - Easo Basket Mendiola</b> Larunbata. 16:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTIL PARTAIDETZA</b>
<b>Bera Bera Zurriola - Ostadar Beltza</b> Igandea. 09:30. Manteo kirol., Donostian.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>JUBENILA, AZKEN FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Hernani KE 2</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Hernani KE 1</b> Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

<b>PILOTA</b>
<b>JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA</b>
<b>EPLA (Lizarazu) - Intza (Olazabal)</b> Ostirala. 18:30 (3. partida). Agustina Otaola pilotalekua, Errenteria.
<b>Intza (Urdanpilleta) - Hernani (Iturbe)</b> Igandea. 11:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pilotalekuan.
<b>Intza (Diaz de Gereñu) - Tolosa (Goikoetxea)</b> Igandea. 11:00 (2. partida). Michelin kirol guneko pilotalekuan.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Intza (Jauregi) - Ataun (Labaka)</b> Larunbata. 16:00 (2. partida). Behar Zana pilotalekua, Villabonan.
<b>UDABERRI TX., ALEBINAK 1. MAILA</b>
<b>LAPKE 3 - Intza</b> Ostirala. 18:00 (4. partida). Joxemiel Barandiarren pilotalekua., Lezon.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>14 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Zarautz Beltzak KE - Eibar Arrasate Mutriku</b> Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.
<b>GIMNASTIKA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>LOKEko alebin eta infantil mailako gimnastek Gipuzkoako Eskolarteko txapelketa lehiatuko dute.</b> Larunbata. 10:00 eta 16:00. Labegarieta kiroldegia, Bergaran.

<b>IGERIKETA</b>
<b>ORDIZIA SARIA</b>
<b>Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariek 1. Ordizia Sarian parte hartuko dute.</b> Larunbata. 15:00. Majori kiroldegia, Ordizian.
<b>TEKNIFIKAZIOA</b>
<b>Buruntzaldea IKTko Iñaki Garcia, Mario Amantegi, Ibon Elola eta Oihan Matutek Gipuzkoako federazioak antolatutako alebin mailako teknifikazio saioa izango dute.</b> Larunbata. Goiza. Paco Yoldi kiroldegia, Donostian.
<b>IDM BERLIN</b>
<b>Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire 37. IDM Berlin igeriketa egokitutako proban Espainiako selekzioarekin lehiatuko da.</b> Ostegunetik igandera. Berlin, Alemanian.
<b>ATLETISMOA</b>
<b>EUSKADIKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar SKTko 20 eta 18 urtez azpiko atletek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.</b> Larunbata eta Igandea. Kote Olaizola estadioan, Donostian.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Ostadar SKTko alebin eta infantil mailako atletek banakako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia lehiatuko dute.</b>

Igandea. 10:00. Antonio Elorza belodromoan, Donostian.
<b>LASTERKETA</b>
<b>ZEGAMA-AIZKORRI KM BERTIKALA</b>
<b>Hainbat herritar eta herriko taldeetako ordezkariak IX. Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala proban egingo dute lasterka.</b> Ostirala. 16:00. Zegaman.
<b>ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA</b>
<b>Hainbat herritar eta herriko taldeetako ordezkariak 22. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian parte hartuko dute.</b> Igandea. 09:00. Zegaman.
<b>ENPRESEN LASTERKETA</b>
<b>Hainbat herritar XIV. Enpresen Lasterketan lehiatuko dira.</b> Igandea. 10:00. Donostian.
<b>TRIATLOIA</b>
<b>MUTRIKUKO SPRINT TRIATLOIA</b>
<b>Lasarte-Oriako triatletek Mutrikuko Sprint proba lehiatuko dute.</b> Larunbata. 15:15. Mutrikuan.
<b>ARRAUNA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiako eskifaia Trainerilla Ligako azken jardunaldian eta Gipuzkoako txapelketan izango da lehiatzaile.</b> Larunbata eta Igandea. Hondarribian.

# Senior taldeak, borrokatutako garaipena

Ostadar SKTko Senior 1. Mailako taldeak Lezo SKT garaitu du, 57-43. Bere multzoko lehen postuan amaitu du bigarren fasea saskibaloitako taldeak. Txapelketako sailkapena zehazteko kanporaketa jokatu du hilaren 14an, Goizper Group BKLren aurka

## Txintxarri

Ostadar Saskibaloitako saileko Senior 1. mailako taldeak bigarren fasea ederki amaitu du; 57-43 gailendu zen Vivanta Lezo SKTren aurka, hilaren 6an, Maialen Chourraut kiroldegian. Euren multzoko sailkapeneko lehen bi taldeak zeuden aurrez aurre eta intentsitate handiko partida espero zuten talde urdin-beltzak. Hala izan zen.

Epaileak hasiera eman eta aurreikuspenak bete ziren. Bi taldeek irabazteko gogoekin atera ziren kantzara eta norgehiagoka bizia izan zen.

Aurkaria jarri zen aurretik 0-4, baina Ostadarrek ongi erantzun zuen eta aurre hartu zuen lehen laurdeneko bosgarren minutuan, 8-4.

Lehen minutu horietako tentsioa neurketa osoan zehar mantendu zen eta markagailua estu egon zen partzialak erakusten duten moduan: 16-8, 13-9, 14-11 eta 14-15.

Esfortzu handia eginez, etxeko taldeak aldea handitu eta partida eskuratu zuen.

## Azken esfortzua

Garaipenari esker, Ostadar senior taldeak lehen postuan amaitu du egungo fasea; hamabi



Ostadar seniorreko jokalaria, jaurtiketa egin nahian. TXINTXARRI

neurketetatik bakarra galdu du eta 23 puntu eskuratu ditu.

Orain Senior 1. mailako sailkapena zehazteko, 6. multzoko lehenengo taldearen aurka jokatu du kanporaketa, Goizper Group BKL Hitzordua hilaren 14an izango da 16:00etan Labegaraieta kiroldegian, Bergaran.

Garaipena lortuz gero, Gaizka Urreiztik eta Beñat Eleiceguik zuzendutako taldeak maila mantentzea ziurtatuko luke.

Bi prestatzaileak harro daude taldeak urte osoan egindako

lanarekin: "Jokalariek motibazioa eta lan gogoia mantendu dute urte osoan zehar eta hala ikus daiteke sailkapenean".

Denboraldia pozik eta gustura bukatu dutela onartu dute talde urdin-beltzeko arduradunek. Erronka handiari egin zioten aurre 2022ko irailean taldeko ardura hartzerakoan eta lana ongi egin dutenaren ustean: "Taldea honek denboraldi honetan garapen ona izatea espero zuten eta espektatiben mailara egon garela uste dugu".

atera zuen talde berdeak eta bigarren postua eskuratu zuten. Hilaren 6an, Pasai Donibanen, Hondarribia A eskifaiako tostan egon zen herritarra eta garaile izan ziren. Getariako hirugarren jardunaldian, aldiz, B ontzian arraun egin zuen Fernandezek eta ez zuen hainbesteko zortetik izan; seigarren amaitu zuten saioa.

Hilaren 13an, Hondarribian jokatu dute ligako azken hitzordua; 14an, aldiz, Gipuzkoako txapelketa izango da lehen.

## Hondarribiak Trainerilla ligako lehen postuak eskuratu ditu

Intza Fernandez herritarra Trainerilla liga lehiatzen ari da Hondarribia Arraun Elkartearekin

## Txintxarri

Traineruen test probak amaituta, taldeetako batzuk Trainerilla Liga baliatzen dute lehen mantentzeko. Hondarribia da horietako bat eta Intza Fernandez herritarra modalitate horretako

ligan ari da parte hartzen. Bi ontzi aurkeztu ditu ligara eta Fernandez herritarra zein gainerako arraunlariak txandaka ari dira batean edo bestean.

Hilaren 1ean hasi zen liga Mutrikin. Trainerilla bakarra

## Intzako pilotariek ez zuten zortetik izan euren partidetan

Haritza Diaz de Gereñu jubenilak lortu du jardunaldiko garaipen bakarra Lau eta Erdiko txapelketan

## Txintxarri

Pilota zaleek maila ezberdinetako neurketaz gozatu ahal izan zuten hilaren 5ean, Loidibarren pilotalekuan.

Lau eta Erdiko 2. mailako jubenil lehia izan zen lehenena. Beñat Olazabalek LAPKEko Oliden izan zuen aurrez aurre. Olazabalek ederki jokatu zituen tantoak; sakeak erantzutean ez zen fin ibili, ordea eta horrek kalte egin zion. Lazkaotarrak 12-22 irabazi zuen norgehiagoka.

Ostean, alebin mailako nesken Gipuzkoako txapelketako lehia izan zen lehenengoz. Itxaso Iparragirre gazteak Oiarpeko Galardiren aurka neurtu zituen indarrak. Aurkari gogorra izan zuen herritarrek; oiartzuarrak ez zuen akatsik egin. Nahiz eta ahalegindu, 0-2 (3-8 eta 1-8) gailendu zen Galardi.

Alebin mailako bikotekako Udaberri txapelketako hitzordua eman zion amaiera jaialdiari. Arkaitz Lasa eta Lier Fernandez bikoteak Ilunpe 2ko kideen aurkako neurketa berdindua jokatu arren, markagailuan ez zuen islarik izan eta 6-16 amaitu zen lehia.

Etxetik kanpo Alegian eta Villabonan izan ziren Intzako pilotariak. Alegian Diaz de Gereñuk lau eta Erdiko neurketa borrokatua



Iparragirre eta Galardiren arteko partidako irudia. TXINTXARRI

gailendu zuen Intxurreko Onsaloren aurka; 18-22 irabazi zuen.

Oier Jauregik Ilunpeko Peñagarikano izan zuen aurkari Villabonan Gipuzkoako txapelketan. Jauregik neurketa ederra egin zuen, tantoak egitean ez zuen zortetik izan eta eskuko minarekin amaitu zuen. 16-9 galdu zuen.

## Ezin txapela eraman

Lau eta Erdian atsedean izan arren, GRABNI txapelketako trinketeko finala jokatu zuen Intza kide Urdanpilletak Gipuzkoaren izenean, Gasteizen. Gaztelekuko Cestau izan zuen bikote eta Bizkaiaren aurka txapela izan zuten jokoan.

Arrotajauregi eta Alonso bizkaitarrak nagusi izan ziren eta 40-28 gailendu ziren.

## Ostadarreko kadeteek garaipena erdietsiz amaitu dute denboraldia

Aldapeta Maria ikastetxeko C eta B donostiarren aurka lehiatu dira talde urdin-beltzeko bi taldeak

## Txintxarri

Ligako azken jardunaldian, Ostadar Boleibol saileko kadete taldeek (A eta B) Aldapeta Maria ikastetxeko aurkako hitzordu bikoitza izan zuten Maialen Chourraut kiroldegian. Talde urdin-beltzak izan ziren nagusi. Horri esker, euren multzoetan lehen bosten artean amaitu dute Gipuzkoako txapelketa.

Ostadar B izan zen lehenena kantzara sartzen eta aurrean Aldapeta Maria C izan zuen.

Neurketa borrokatua izan zen. Lehen seta (25-27) aurkariaren aldeko izan bazen ere, gainerako hiruetan ederki egin zuten lan Ostadarreko jokalariek garaipena lortzeko: 25-18, 25-23 eta 18-25.

A taldeak ere izerdi ederra egin behar izan zuen Aldapeta Maria B garaitzeko. Bi set (25-15 eta 25-23) irabazi ostean, aurkariak bosgarren seta jokatzea behartu zuen (23-25 eta 22-25). Azken horretako 15-11ko markagailuak etxekoei eman zizkien puntuak.

# Igerilariek, dominak eta gutxieneko markak

Buruntzaldea IKTKo igerilariak ederki jardun dira hitzordu ezberdinetan. Garazi Etxeberriak bakarka zein erreleboetan bost domina eskuratu ditu Gipuzkoako Selekzioarekin; alebinek eta benjaminek gutxieneko marka berriak lortu dituzte

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariek hiru hitzordu izan zituzten hilaren 6an eta 7an. Garazi Etxeberria Gipuzkoako Selekzioarekin izan zen 30eme Nautiques de Tarbes, Frantzia lehiaketan parte hartzen. Taldeko alebin eta benjaminek, aldiz, euren ligetako azken jardunaldiari egin zioten aurre Hernanin. Domina eta marka ugari poltsikoratu dituzte.

Tarbesen, Etxeberriak sei proba lehiatu zituen bakarka zein erreleboetan. Guztietan finalera sailkatu eta bost domina jantzi zituen herritarrek.

Larunbatean, 50 m. libre proban, denbora junior mailan brontzezko domina (28,29) lortu zuen Lasarte-Oriako igerilariak. 100 m. bizkar sailkapenean (01.12,27), baita finalean ere marka pertsonala egin (01.12,17) eta junior mailako lehen postua lortu zuen Etxeberriak. Eta Gipuzkoako selekzioko kideekin 4x100 m. libre erreleboan ere brontzea jantzi zuen.



Etxeberria, Tarbesen lehian. GIF

Igandean, berriz, goizeko saioan 50 m. bizkar proban marka pertsonala ezarri zuen Etxeberriak, 33.25. Finalean ezin izan zuen marka hobetu baina junior mailako brontzezko domina eskuratu zuen.

Estilo libreko 100 metroko sailkatze proban 01.02,73 egin zuen igerilari gazteak eta arratsaldean ezin izan zuen marka hori hobetu. Lau estiloetako 4x100 m. erreleboan azken posta ere egin zuen Etxeberriak eta garaipena lortu zuen laukoak.

## Azken jardunaldia

Hernaniko Udal Kiroldegian igeriketako taldeko alebin eta

benjaminek ere lan ederra egin zuten.

Alebinek bi proba izan zituzten euren saioan – 200 m. estilo libre eta 400 m. lau estilo – eta bietan Iñaki Garcia, Ibon Elola, Oihan Matute eta Mario Amantegi lehen lau postuetan izan ziren. Guztiek estiloko probako Euskal Herriko Udako txapelketarako gutxienekoa egin zuten eta Garciak estilo librekoan ere eskuratu zuen. Itxaso Iparragirrek, berriz, bigarren postua eta Gipuzkoako Udako txapelketarako txartela lortu zituen lau estilo saioan; laugarren izan zen estilo librean.

Benjamin mailan, adinaren arabera, 100 m. lau estilo proba edo 50 m. tximeleta eta 200 m. lau estilo probak egin zituzten.

Azken jardunaldi ongi baliatu zuten igerilari batzuek Gipuzkoako eskolarteko txapelketako txartela lortzeko eta azkenik, zazpi benjamin izango dira lehiaketa horretan.



OSTADAR ATLETISMOA

## Infantil taldeak, lehen postuetan

Ostadar Atletismo saileko infantil taldeak Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa lehiatu zuen hilaren 7an, Ordizian. Nesken taldeak bosgarren postuan amaitu zuen; mutilak, berriz, zazpigarren izan ziren. Emaitzen artean, Eider Redondok 80 m. hesietan egindako 12,55 marka nabarmendu dute taldeko arduradunek. Bestalde, proba libreak ere izan ziren Donostian eta June Garciak (10,80 m.) zein Oinatz Almagrok (12,27 m.) euren marka ondu zuten jauzi hirukoitzean.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Otsagabiako lagunaren bisita

Ostadar Ipar Martxako taldeak lagun duten Otsagabiako taldearen bisita jaso du hilaren 6an. Guztiek batera Hendaia eta Abadia gaztelua zein Hondarribia bisitatu dute kirola eginez. Lasarte-Oriako taldeak iraila amaieran egingo du bidaia Nafarroa Garaiko herrira.

## Ohorezko Mailako ametsak azken minutuan egin du ihes

Gesalaga Okelan Zarautz taldeak etorriko neurketa irabazi arren, ezin izan du Santanderreko aldea murriztu

## Txintxarri

Giro ederra izan zen hilaren 7an, Zarautzeko Asti zelaian. Zaletu ugari hurbildu zen Ohorezko B mailako Gesalaga Okelan Zarautz taldea bultzatzeko; Zarautzen harrobi den Lasarte-Oriako Beltzak taldeko kideak ere. Etxekoek Santanderreko aurkako markagailuari itzulua eman behar zioten, 17-13. Fran Puertas herritarrek zuzentzen duen taldea ederki saiatu arren, Mazabi Santander Independiente RCK lortu zuen igoyerako finalerako txartela.



Neurketan izan zen giroa. BEÑAT ARROYO

Zelaira gogotsu atera ziren bi taldeak eta defentsa lan ederra egin zuten. Entsegurik ez zen izan partida osoan eta zigor ostiko bitartez egin zituzten puntu guztiak. Markagailua irekitzen

lehena Zarautz izan zen eta atsedena dirira, 9-0ko markagailuarekin iristea lortu zuen. Aldea mantenduz gero, finalerako sailkapena eskuan zuen taldeak, baina asko falta zen.

Atsedena ostean, Santanderrek eta Beltzek ongi baliatu zituzten zigor ostikoak. Alabaina, aurkaria finago ibili zen eta 15-12 gerturatu zen.

Azkeneko bost minutuetan sartzearekin bat, Zarautzek 18-12koa jarri zuen markagailuan. Helburua eskuratzeko minutu bat falta zela, ordea; Santanderrek aldeko zigor ostikoa egin zuen.

Zarautzek ezin izan zuen azken jokaldirik gauzatu eta 18-15koarekin zapora gazi gozoa geratu zitzaion beltzei. Garaipena erdietsi zuten, baina hiru puntuko aldea ez zen nahikoa Ohorezko mailako igoyerako finalean egoteko.



Beltzak taldeko gaztetxoak, Kontxako hondartzan lehian. NEREA EIZAGIRRE

## Hondartzako jardunaldi ederra

Beltzak Rugby Taldeko 14, 12 eta 10 urte azpiko gaztetxoek denboraldiko azken hitzordua izan zuten hilaren 7an, Kontxako Hondartza Torneoan. Eskola ezberdinetako 400 bat gazte bildu ziren, baita errugbi inklusiboko taldeak ere. Beltzak bezala edo Zarautz Errugbi taldeko kideekin batera seina neurketa jokatu zituzten. Ostean, Kontxan bainatzeko tartea ere izan zuten.

# MULTIÓPTICAS

# 8.URTE

Zure ikusmen osasuna zaintzen

R.P.S. 91/20



**2 MO 99€**  
**GRADUATU**  
erreflexuen aurkako lenteekin




Zure betaurreko graduatu  
erosketarekin,  
EGUZKITAKO BETAURREKO  
GRADUATUTA OPARI



**2 MO 229€**  
**PROGRESIBO**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak. 2023/6/30era arte.



Berritu betaurreko  
graduata eta lortu  
%25-eko deskontua  
UKIPEN LENTEETAN



**%30** -eko  
deskontua  
**EGUZKITAKO  
BETAURREKOETAN**




**EGUZKITAKO  
2 MÓ POLARIZATU  
68€**

Hartu hitzordua **943 377 455**  
telefonoan edo **whatsapp** bidez



**Kale Nagusia, 15  
LASARTE- ORIA**

## ZORION AGURRAK



**Pedro**  
Zorionak txapeldun, 8 urte!!! Jarraitzeko moduko eredu zara. Zutaz oso harro gaude. Azko maite zaitugu, aita, ama eta Laura.



**Jon**  
Zorionak "nausi"!!! Ederki ospatuko dugu igandean bapo bazkalduta, baina aurretik beste menu bat prestatu dugu, e! Muxuak, besarkadak, kantak, belarrietatik tirakadak...eta postreren bat! Costa Ricaraino eta bueltan maite zaitugu! Etxekoak.



**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-N.  
Deitu 943-37 14 48 telefonora,  
bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
helbide elektronikora  
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12	LASA	<b>EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00</b>
LARUNBATA, 13	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 14	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 15	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 16	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 17	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 18	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

<b>UDALAREN TELEFONOAK:</b>	<b>LARRIALDIKO TELEFONOAK:</b>
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA:	DYA: 943-46 46 22
943-37 61 84	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:	ERTZAINZA: 943-53 88 40
943-37 61 81	SOS DEIAK: 112
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	
KIUB: 943-36 16 05	
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTERI AEK: 607 62 52 33	

## OHARRA

**Errigorako produktuen banaketa**

Errigoraren Lasarte-Oriako Taldeak jakinarazi du udaberriko kanpainako kontserba produktu eta kutzak hilaren 16an eta 17an, asteartean eta asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara banatuko dituela, Ttakunenea elkartean (Iñigo de Loiola kalea, 6). Bide batez, eskerrak eta zorionak eman dizkie beste behin Nafarroa hegoaldean euskara eta bertako ekoizleen lana sustatzen laguntzen duen egitasmoan parte hartu izanagatik. "Mila esker bide honetan sinestegatik!"

Errigoraren balioak erakutsi eta azpimarratzea izan da duela gutxi amaitu duten udaberriko kanpaina horren helburu nagusia.

**Zatoz txistua jotzera**

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!



## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA****ERRENTAN HARTU**

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023 ko urritik 2024 ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Harremanetarako 639 98 76 45 / 690 27 04 68 (Olatz eta Aitor)

**LANA****ESKAINITZA**

Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, lanaldi erdiz. Harremanetarako zenbakia, 695 78 32 02.

Game Master bila gabiltza. Euskaraz jakitea, asteburuetan lan egiteko prestatutasuna eta Lasarte-Oriakoa izatea baloratuko ditugu. Bidali CV info@quantum.eus-era

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun

baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

Barazar ostua (Zubieta) zerbitzari bila ari da ostiral, larunbat eta igande eguerdian lan egiteko. Harremanetarako zenbakia: 943 36 33 58.

**ESKARIA**

Lan bila nabil interna, orduka edo asteburuetan. Adineko pertsonak zaintzen eskarmentu handia dut. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Interna gisa egingo nuke lan, astelehenerdik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurilaritzaren ikastaroaren ziurtagiria

ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo

nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

**SALEROSKETA****SALDU**

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

**BESTELAKOAK****HEZKUNTZA**

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsaldean. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646 82 44 66

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**

Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

**Banatazaileak**

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene Iraola, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Endika Merchan eta Gorka Morales.

**Informatika zerbitzuak**

IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

## BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

## OSTIRALA 12

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Diego Matxinbarrena artistaren lanak erakutsiko dituzte Siglo 20 tabernan, ekainaren 20ra arte. Sarrera, doan.

Siglo taberna, 19:00etatik 21:00etara.

### LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa egingo du Aterpea elkarteak. Besteak beste, tailer batzuk antolatu ditu:

**17:00etatik 18:30era**, etxeko gailetak egiten ikasteko saioa, Plan B kafetegian.

**17:00etatik 19:00etara**, landareak landatzen ikasi, Ormazabal loradendan.

**17:00etatik 19:30era**, Osasuna eta etxeko sendagaiak tailerra, Eli Lasa farmazian.

Herrian barrena, arratsaldean zehar.

### LASARTE-ORIA Musika

Kontzertua emango du Dos-i taldeak, Danok Kide elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan. Sarrera doakoa da.

Brigitarren komentua, 19:30ean.

### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Lasartearra elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten. Ospakizun egitarauaren barruan bertso afari bat egingo du Ane Labaka eta Lierni Rekondo herritarrek gonbidatuta. Zabaleta eta Sasotetan, goizean.

### LASARTE-ORIA Zinema

*20.000 especies de abejas* filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. Kultur etxea, 22:00etan.

## LARUNBATA 13

### LASARTE-ORIA Jaia

Iñigo de Loiola kaleko bizilagunek Udaberriko Festa ospatuko dute.

**10:00etan**, diana. Ankoker taldeak esnatuko du auzoa.

**11:00etatik aurrera**, pintxo potea jan-edana agortu arte.

**11:00etatik 13:00etara**, haurrentzako jolasak.

**12:00etan**, bizkotxo lehiaketa.  
**12:00etatik 14:00etara**, Gautxori txaranga ibiliko da kaleetan zehar.

**14:30ean**, paella herrikoia, 8



**LASARTE-ORIA Auzoz auzoko tailerrak.** Lasarte-Oriako Udala zenbait tailer egiten ari da auzoz auzo. Hurrengo biak hauek izango dira, bihar, hilak 13, larunbatez: azazkalak egiteko ikastaroa Zabaletan, 11:00etatik 13:30era; eta ipuin kontalaria Sasotetan, 12:00etatik 13:00etara. Antolatzailerek jakinarazi dute azken hori 3 eta 4 urteko umeei bideratuta dagoela. Hilabeteko gainerako larunbatetan egingo dituzte saio gehiago.

Bihar, hilak 13, Zabaleta eta Sasoteta auzoetan, goizean zehar.

euroren truke: paella, edaria eta postrea. Iñaki tabernan erosi behar dituzte txartelak herritarrek.

**16:00etan**, bingoa.

**18:30etan**, dantza saioa: salsa, merengea, eta abar.

**19:00etan**, DJ Karpin.

Oriarte Landaberri, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa egingo du Aterpea elkarteak. Jarduerak, hauek:

**20:00ak arte**, txu-txu tren bat herrian barrena ibiliko da.

**13:00etatik 16:00etara**, Udaberri Street Food festa, Arkupe tabernan. Herrian zehar, goizean.

## IGANDEA 14

### LASARTE-ORIA Zinema

*Oink Oink* filma emango dute. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*20.000 especies de abejas* filma emango dute. Sarrerek, 6 euro. Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTEARTEA 16

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Nire zigilua* antzezlanaren emanaldia egingo du Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroko antzerki taldeak. Sarrerek 3 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

## ASTEAZKENA 17

### LASARTE-ORIA Opera

Opera eta ballet zikloaren barruan, Giacomo Puccini konpositorearen *Turandot* lanaren emanaldi digitala egingo dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

## OSTEGUNA 18

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

*Kirol inklusiboa eta egokitua* hitzaldia antolatu du Ostadar SKTk, bere 40. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Sarrera doakoa da.

Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00.

## LARUNBATA 20

### LASARTE-ORIA Dantza

*Yarin* dantza ikuskizunaren emanaldia egingo dute Jon Maya eta Andres Marin dantzariak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

## OSTEGUNA 25

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

*Ostadarretik pasa diren kirolari nabarmenenak* hitzaldia antolatu du Ostadar SKTk, bere 40. urteurrena ospatzeko egitarauaren barruan. Sarrera doakoa da.

Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00.



Ostadar SKTko langile eta arduradunak, egitaraua aurkezten. OSTADAR SKT

## Herritarrekin ospatuko dute herritik eta herriarentzat egina

Solasaldiak, argazki erakusketa eta denboraldi amaierako festa egingo ditu Ostadar SKTk, 40. urteurrenaren harira

### Txintxarri

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak 1983tik darama kirola sustatzen Lasarte-Orian, filosofia honekin: herritik eta herriarentzat lan egitea. "Herritarrak izan dira antolatu ditugun jarduerak guztien jomuga, eta herritarren sostenguari garatu ahal izan ditugu", adierazi dute elkarteak kideek. 40. urtebetetzea hilaren 18tik ekainaren 3ra bitartean ospatuko dute, egitarau berezi batekin: hiru hitzaldi, argazki erakusketa bat eta denboraldi amaierako festa.

"Zenbaezinak" dira Ostadarren bidez kirola egin duten herritarrak, eta "kalkulaezina" oraindik urdin-beltzekin ariko diren kopurua. Lanean hasi zirenetik 40 urte pasa badira ere, elkartearen gauzak egiteko moduaren esentzia ez da aldatu: herritik eta herriarentzat. Gauzak horrela, gaur-gaurkoz 991 kirolarik ordezkatzeko kluba astebururo, atal hauetakoren batean: Areto Futbola, Tenisa, Saskibaloia, Futbola, Errugbia, Atletismoa, Ipar Martxa, Boloak, Kirol Egokitua, Boleibola, Mendia, Zikloturismoa eta Krosa.

Kiroletakoa nola, 40. urteurrena ospatzeko eskaintza ere anitza izango da. Ondoko taulan jaso ditugu ekimen bakoitzaren xehetasun guztiak. Erakusketari dagokionez, antolatzailerek esan dute "dokumentazio lan izugarria" egin dutela, klubaren ibilbideko hainbat mugari erakusteko.

Urtemuga biribiltzeko, denboraldi amaierako festa

egingo dute ekainaren 3an, 11:00etatik aurrera, Michelingo frontoian. Urtero legez, Auzolan eta Kirolari Onenaren sariak banatuko ditu Ostadarrek, eta, ondoren, sail bakoitzak taldeetako jokalaritza jatorrenei aitortza egingo die. Egitarauan badago berrikuntzarik, izan ere, 40. urteurrenaren harira talde argazki erraldoi bat aterako dute kirolari guztiak. Bukatzeko, jan-edana izango dute Beltzak errugbi eskolakoek antolatutako hirugarren denboran.

Oroigarri gisa, giltzako bereziak atera ditu Ostadarrek. Erosi nahi dutenek kirol elkartearen bulegoan (Geltoki kalea, 25) izango dute aukera eta baita denboraldi amaierako festan ere, 2 euroren truke.

## Egitaraua

- **Hilak 18, 19:00etan:** *Kirol inklusiboa eta egokitua* hitzaldia, kultur etxeko hitzaldi aretoan.
- **Hilak 25, 19:00etan:** *Ostadarretik pasa diren kirolari nabarmenenak* hitzaldia, kultur etxean.
- **Ekainak 1, 19:00etan:** *Emakumea eta kirola* hitzaldia, A. Merceron.
- **Hilak 26-Ekainak 2, 18:00-20:00:** Argazki erakusketa, A. Merceron.
- **Ekainak 3, 11:00etan:** Denboraldi amaierako festa, Michelingo frontoian.

# Erromeri giroak berotu du Azkorte

Ttakun Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatuta, urteroko ekimena egin zuten maiatzeko lehen igandean. Eguraldi iragarpena ez zen ona eta haize fina bazebilen ere, elizkizuna hasi aurretik oinez edota autobusean, jende mordoxka bertaratu zen ermita ingurura. Tontorrera bidean jarraitu, atsedean hartu edo meza entzutea izan zuten aukeran. Apaizaren estreinako aldia zen eta euskaraz ekin zion liturgiari, erdia pasata gaztelaniaz ere zerbait esan beharko zuela jabetu zen arte. Ordura artekoak laburtu eta elebitan jarraitu zuen amaitu arte. Hizkuntzak tartekatzeaz gain, Alboka abesbatzak abestutako kantak errezo artean sartzen joan ziren. Baseliza barruan zeuden bitartean, Ttakun KEk jarritako postuan ogitaratekoak prestatzen aritu baziren ere, dena gutxi izan zen barra inguruan zeudenak artatzeko. Tai gabe aritu ziren bai barra atzekoak batetik bestera jana eta edana banatzen bai alboko mahaikoak ogia eskatutakoarekin betetzen.

Ttiriki Ttarraka eskolako bikoteak girotu zuen hamaiketarako tartea, eta dantzara animatu zenik ere izan zen. Bien bitartean, zabalguneko erdigunean herri kirol erakustaldirako beharrezko guztia jartzen joan ziren. Beñat Telleria herritarra eta Julen Gabirondo urnietarra aritu ziren; lehenik, bakarka, eta ondoren, bata bestearen aurka. Aizkolariak enborra moztu, harri jasotzaileak kubikoarekin bi minutuko saioa egin, eta aldatzera joan ziren. Etena musikarekin bete zuten trikitalariek. Bueltatzean, hiru proba zituzten aurretik: hiru kiloko bolarekin hamabost altxaldi, bina enbor moztu, eta hiru korte trontzan nork lehenago egin. Telleriak aurre hartu zuen, baina denbora galdu zuen aizkora lanetan; trontzan buelta eman arren, Gabirondo gailendu zen. Txaloak, hala ere, erdi bana jaso zituzten.

Prestatutako egitaraua amaituta, nahi izan zuenak barran azken jan-edan azkarra egin edo zerrarekin nola moldatzen den probatzeko aukera izan zuen. Mordoxka animatu zen moztutako zatia etxera eramateko nahi hutsagatik izan bada ere; eta nahiko ondo moldatu zirela esan behar. Mendingo gora edo beherako bidea hartuta, ermita aurrealdea husten joan zen poliki-poliki. Apaizak esan bezala, "beranduenera, hurrengo urtera arte".



11:00etako meza izan zen egitarauko lehen jardura. TXINTXARRI



Giro ederra izan zen Azkorteko ermitan. TXINTXARRI



Bi laguntzaile, hamaiketako goxoa prestatzen. TXINTXARRI



Trikitalariek girotu zuten erromeria. TXINTXARRI



Kalejiran dantza egitera animatu ziren zenbait herritar. TXINTXARRI

## Argazki ederren truke, sariak



Asier Garcia, Aldikako produktuen saskiarekin. TXINTXARRI

**Epaimahaiaren saria, Asier Garcarentzat.**  
Ilunabarra Keramasen argazkiaren egileak Aldikaren kutixiekin betetako otar bat eraman du etxera.



Errigorako otar bat eskuratu du Leire Vareak. TXINTXARRI

**Leire Vareak irabazi du irakurleen saria.**  
Pozarren jaso du Errigoraren saskia Txoko polita argazki ederraren egileak.



Julen Gabirondo eta Beñat Telleria, ahalegin betean. TXINTXARRI